

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

# ETXETIK PLAZARA

LEURTZAren BEGIRADA

**SARIA:**  
**LESAKAKO**  
**BEKO mintegian**  
**60 euroko**  
**erosketa**

2021eko APIRILA

172. ALEA



# IRAKURLAN

Leurtzako urtegiak Urrotz eta Beintza-Labaien udalerrien artean daude, Nafarroa Atlantikoko basoen erdian, eta 1920an eraiki ziren. Leurtza izeneko erreka, erdi ezkutaturik, bertan isurtzen ditu bere urak. Hala, pagadiz inguratutako arro itxiak berezitasun handia ematen dio lekuari. Bertako urek, animaliek nahiz zuhaitzek historiaren zertzeladak kontatzen dizkigute oraindik, baita hainbat eta hainbat istorio xeble ere.

Urtegien helburua elektrizitatearen ustiapena izan zen: ekoizpen hori lortzeko erabiltzen den ura presio-hodi batetik 250 metro jaisten da, eta ibaian behera dagoen zentrala elikatzen du. Bertako ezaugarri esanguratsuenak urtegiaren ur-gaina, basoa eta ur-ertzeraino iristen den belardia dira. Era berean, espazio berde eta hezea da, hau da, hainbat animalia eta landareren bizi-leku egokia. 1996an ekosistema hori babesteko eta bultzatzeko, Aisialdirako Natur Eremu izendatu zen. Horren ondorioz, gaur egun, Leurtzan ingurugiroaren eta naturaren balioak babestuta daude. Oreatuta gelditzen da gizakiaren erabilera eta bertze jarduera batzuk; erraterako, ustiapen hidroelektrikoa, abeltzaintza, ehiza, arrantza, onddoak biltzea eta aisialdiko jarduerak (mendiko kirol jarduerak edo behatze lasaia eta naturaz disfrutatzea).


Leurtzak bere historia eta istorio aunitzen lekukotza jaso du. Bertan, gizakia aurre-historiatik egon da, duela 5000 urte inguru. Pittorzar eta Mugakosoroko trikuharriek, Axerizulotako tumuluak eta Pallueko trikuharriek ematen dute horren testigantza. Tribu horiek artzaintzatik bizi ziren; ziurrenik, nomadak ziren, brontzea ezagutzen zutenak, baina haien arrastoa hilobi-monumentuetan bertzerik ez zaigu gelditu. Pentsatzekoa da, garai hartan, basoa ez zela horren zabala izanen eta larreek egungoa baino eremu zabalagoa hartuko zutela.

Erromatarren garaian, baskoien basoa izan zen, espazio basatia, eta, haien ustez, bizitzeko desegokia. Erdi Arora arte artzaintzan aritu eta ikatza ustiatzeko erabili zen. Basoetatik ateratako materiala kontinenteko Nafarroa, itsasoko Nafarroa eta Bidasoko eskualdeak lotuko zituen bide-sarea eraikitzeko erabili zen: zati batzuk harriz babestu ziren (Urrotz eta Eltzaburu lotzen zuen galtzada). Horrez gain, udalerrien mugak zehazten joan ziren: Zumardenako 1781eko mugarrria da horren lekuko.

XIX. mendean zehar, karlistaden garaian, zenbait gertaera historiko burutu ziren Leurtzan. Garrantzitsuenen artean, Larremearreko guda aipatzen ahal da (1835ean); Espoz y Mina jeneralak zuzendutako tropa liberalen eta Zumalakarregi jeneralak zuzendutako tropa karlisten artean burutu zuten.

Belateko errepidea ireki zenean, salerosketen garraiorako gainerako ohiko mendi-bideen artean kompetentzia sortu zen. Ondorioz eta ez desagerrarazteko, zenbait bideren galtzadak eta zoruak hobetu ziren (Zumardenako harrizko bidea).

Gudak, liskarrak, gaueko-lanak... iragana, oraina eta etorkizuna, den-dena bertako hego haizeak kontakizun bihurtzen ditu. Leurtzako urtaroei basoak kolorez aldatu eta zuhaitzak biluzten dituzte. Urtegiak bisitariei historia eta kontakizun ederrak xuxurlatzen dizkie, azken finean, eremu magikoa baita.



## ARAZI

Testuan “desagerrarazteko” forma agertu zaigu. Horixe aitzakiatzat hartu eta ARAZI arazlea aztertuko dugu ale honetan.

### DEFINIZIOA

Ekintzak eragileren bat duela adierazten dute aditz arazleek. Bi modutara erazten dira:  
- dagokion aditzoinari *-arazi* erantsiz; adibidez, geldiarazi.  
- edo eragin aditzaren bidez (errate baterako, barre eragin). Oraingoan, *-arazi* aztertu behar dugu.

### ORTOGRAFIA-ARAUAK

1.- Beti aurreko aditzaren aditz-oinari loturik idatziko da: esanarazi, etorrarazi, edanarazi...  
2.- Aditzoina “a” letraz amaitzen bada, “a” bakarra idatziko da: kantarazi, botarazi, aterarazi...

### ADITZ ERREGIMENA

Orokorrean, oinarri-aditza NOR kasua denean, *-arazi* eranstean, NOR-NORK kasua hartzen du: *Mikel isildu **da** / Norbaitek Mikel isilarazi **du**.*

Aditza NOR-NORK erakoa denean, aldiz, NOR-NORI-NORK erregimena hartzen du:  
*Mikelek egia erran **du** / Norbaitek egia erranarazi **dio** Mikeli;*  
*Liburua irakurri **dut** / Liburua irakurrarazi **didate**.*

Teoria ongi barneratu duzun jakiteko ondorengo esaldiak osatu beharko dituzu. Aditza idatzi dugu, eta zure lana *-arazi* eta dagokion aditz laguntzailea paratzea izanen da.

1. Francoren diktaduraren garaian, aitatziri “Cara al Sol” ABESTU ***abesarazi zioten***.
2. Gaur eskolako txikiek irakaslea HASERRETU \_\_\_\_\_
3. Covid 19a gaitzaren aurka hainbat arau BETE \_\_\_\_\_
4. Partidan atezaina lesionatu zen eta ALDATU BEHAR IZAN \_\_\_\_\_
5. Gaur Gipuzkoara joateko asmoa nuen baina poliziak GELDITU \_\_\_\_\_  
eta ezin izan naiz joan.
6. Kazetariak irratian goizean helarazi dituen zenbait berri arratsaldeko emanaldietan  
GEZURTATU \_\_\_\_\_
7. Garai batean, baita gaur egun ere, hainbat emakume EZKONDU \_\_\_\_\_
8. Amatzik arropa hain ongi tratatzen duenez izugarri IRAUN \_\_\_\_\_



# HITZAK DANTZAN

## ANFIBIO ETA NARRASTIAK

Ezagutzen al dituzu hemen behegian paratu ditugun animalia hauek? Horiexek eta puskaz ere espezie gehiago bizi dira Leurtza inguruan. Hautaketa ttiki bat baino ez dugu egin hemen ikusiko duzun zerrendan; den-denak anfibio eta narrastiak dira. Ea izenak iduriekin erlazionatzeko gai zaren!



1 .....



2 .....



3 .....



4 .....



5 .....



6 .....



7 .....




8 .....



9 .....

- a. Txantxiku arrunta
- b. Baso-igel gorria
- c. Zirauna
- d. Uhandre piriniarra
- e. Zuhaitz-igel arrunta



10 .....

- f. Sugandila
- g. Sugegorria
- h. Arrabioa
- i. Zapaburua
- j. Muskerra

## LEURTZAKO BIZTANLETXOAK

Malerrekako bihotzean, orbain baten ...(1)... barneratzen da NA4040 errepidea; horrek Urrotzeraino eramane gaitu. Han, Leurtzarat ailegatzekotan, urtegiaren seinalea jarraitu eta pistaz mendian goiti joan beharko gara eskultura batekin topo egin ...(2).... Izan ere, harrizko igel potolo batek jakinaraziko digu intereseko lekura ailegatu garena, eta, bide batez, ongietorria emanen digu.

Animaliatxoaren iduriak baso-igel gorria aurkeztuko digu; inguruko protagonista, ...(3).... Nahiz eta Leurtzan ugaria den, anfibio mota hori espezie babestua da. Beraz, begirunez eta tentuz jokatzeari egokituko zaigu, azken finean, haren etxean sartuko gara.

Baina baso-igel gorria ez da urtegiko biztanle bakarra, bertzelako ...(4)... anfibio eta narrastirekin partekatu behar izaten baitu ingurua. Horiei buruz gehiago jakin nahi? Bada, bitxikeria gisa aurkeztuko dizkizugu leurtzatar horiei buruzko hainbat kontu. Adi irakurri! Eta, noski, testuan falta diren hitzak beheko koadrotik hartu eta beren lekuan kokatu!

**ERNE, SARIRAKO!**

a) jo  
b) gero  
c) alegia  
d) ere

e) zoritxarrez  
f) pare  
g) hortaz  
h) bere

i) arte  
j) arren  
k) kasuan  
l) hala

m) aitzin  
n) nahiz  
o) baino  
p) hamaika

**Ba al dakizu zertarako kantazen duten igel arrek?**

Igelek, normalean, kro-kro egiten dute. Baina neguko lozorrotik ateratzen direlarik, otsailetik ...(5)...., arra kantari hasten da emeak erakarri eta estalketa prozesua gauzatzeko. Soinu berezia sortzen dute baso-igel gorriek; gaiari buruz sobera ez dakienak ez lituzke anfibioaren kantutzat hartuko txistu txikiak. Horiek aditu nahi badituzu, soinumapa.net atarira ...(6)... dezakezu:

<http://www.soinumapa.net/marker/leurtza-baso-igel-gorri/>

**Ba al dakizu non ezkututzen diren zenbait animaliatxo?**

Harri eta enborrak izaten dira aunitzen babeslekua. ...(7)...., tentuz jokatu beharra da ezkutaleku horiek mugitu edo jasotzen direlarik, harri bakoitzak ...(8)... funtzioa betetzen baitu ingurunean. Ondorioz, halako harri bat mugituz ...(9)...., zegoen moduan utzi behar da.

**Ba al dakizu zer egiten duen txantxiku arruntak?**

Espezie hori dugu Europako aporik zaharrena. Espezie horren ...(10)...., arra izaten da arrautzak zaintzeaz arduratzen dena. Ernalketa garaian, emeak arrautzak askatzen ditu, eta arrak horiek ernaldu eta bere gorputzaren gibeledan iratxekita garraiatzen ditu. ...(11)...., 65 arrautza inguru zaintzen ditu.

**Ba al dakizu zer funtzio betetzen duten anfibioek?**

Naturaren osasunaren egoera zein den jakin nahi badugu, anfibioei begiratzea ...(12)... ez dago. ...(13)...., aldaketa klimatikoa tarteko, azken urteetan gainbehera nabarmena pairatu duten espezieak dira. Izan ere, azaletik arnasten dutenez, kutsadurak, pestizidek ...(14)... inguruko bertzelako gorabeherak zuzenean erasotzen dituzte.

**Ba al dakizu zer animalia mota den zirauna?**

Ziraunak hankarik ez izan ...(15)...., ez da sugeekin nahasi behar. Muskerren familiakoa da, eta haiek bezala, buztana askatzeko gaitasuna dute, baita berri bat sortzeko ...(16)... . Euskal Herriko ia txoko guzietan aurkitzen ahal da saurio mota hau; noski, Leurtzan ere bai.

# NON OTE?

## URTEGIEN MAPA

Leurtzako urtegiaren nondik norako aunitz ezagutu ditugu. Ondorengo lanketarako, Euskal Herriko hainbat urtegi aukeratu eta mapan kokatu ditugu. Zure lana zenbaki bakoitza dagokion zenbakiarekin parekatzea izanen da. Ziur gaude, Leurtzak bezalaxe, gainerako urtegiek ere beren historia eta bitxikeriak izanen dituztela; hori ere zure esku gelditzen da.



- |             |             |                    |
|-------------|-------------|--------------------|
| a) Itoiz    | e) Senpere  | i) Esa             |
| b) Eugi     | f) Irabia   | j) Leurtza         |
| c) Urbietta | g) Allotz   | k) Urkulu          |
| d) Lareo    | h) Urrunaga | l) Uribarri-Ganboa |

# ERANTZUNAK

## LAN eta LAN (2. or.):

1.- ABESARAZI ZIOTEN; 2.- HASERRARAZI DUTE; 3.- BETEARAZI DIGUTE; 4.- ALDARAZI BEHAR IZAN ZUTEN; 5.- GELDIARAZI NAU; 6.- GEZURTARAZI DIZKIOTE; 7.- EZKONARAZI ZITUZTEN; 8.- IRAUNARAZTEN DIO

## HITZAK DANTZAN (4. or.):

1- a; 2- h; 3- e; 4- g; 5- b; 6- f; 7- c; 8- j; 9- d; 10- i

## NON OTE? (6. or.):

1. e; 2. j; 3. f; 4. a; 5. b; 6. g; 7. i; 8. d; 9. l; 10. k; 11. h; 12. c

## 171. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- dituen; 2- duen; 3- duten; 4- dituen; 5- den; 6- dituen; 7- zen; 8- zituzten; 9- dituen

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

172. aleko SARIA:

**Lesakako BEKO mintegian  
60 euroko erosketa**

171. aleko irabazlea:

**Manttoni Ballarena Iturburua  
Erratzukoa**

**ETXETIK PLAZARA  
liburua, DEBALDE!!  
Eska ezazu,  
Bortziriak edo Malerrekako  
IKA euskaltegietan**



<http://etxetikplazara.ivoox.com>

OHARRA: erantzunak apirilaren 22a baino lehen bidal itzazu.

## SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

1 - _____	7 - _____	12 - _____
2 - _____	8 - _____	13 - _____
3 - _____	9 - _____	14 - _____
4 - _____	10 - _____	15 - _____
5 - _____	11 - _____	16 - _____
6 - _____		

EP 172 (2021/04)



**ika**

euskara errazago egiten




# HIZKI-ZOPA

Hasierako testuan, Leurtza inguruan harrapatu ahal izanen ditugun monumentu megalitiko batzuk aipatu ditugu. Baina, ongi ezagutzen al dituzue monumentu horiek? Ea, ba, ikus dezagun hizki-zopa honetan horien izenak aurkitzeko gai zareten!



H A R R E S P I L T P J Y K  
 J W J Z W I O M N W L W X C  
 Z U T A R R I I E K D N L L  
 E V G Q N J Y V Z C A I R N  
 E C Y X H H S T E I O N B U  
 Z F W D G R D D T U M U L U  
 R A F D H P J M I R U E M S  
 E U J B Q R C L E C Y T U U  
 J X R Q U Y U D L F F T Q X  
 L X D L Q R U L A L Q Q F Z  
 O P Z E T E S T E L A K K F  
 Q U V T R I K U H A R R I M  
 F Z I S T A Z E A W O U W P  
 G R U Y F X B R Y D Q C A Y



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
 Malerrekako IKA  
 Euskaltegiak**

Marrazkiak:

**Joseba Larratxe**

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria  
 Mathilde Brugiere-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko  
 EUSKARA  
 MANKOMUNITATEAK**

Erantzunak: HARRESPIL, TRIKUHARRI, CAIRN, ZUTARRI, TUMULU, ESTELA



## ZOKKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

### HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.  
 Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

Malerrekako IKA Euskaltegia.  
 Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

